



Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

**Suspertze-, Eraldatze- eta
Erresilientzia-Plana gauzatzeko
iruzurraren aurkako neurrien plana**

El texto en castellano puede consultarse en este enlace: [Plan de medidas antifraude](#)

EDUKIA

1.	Sarrera.....	3
2.	Terminoen glosarioa.....	4
3.	Planaren helburua.....	6
4.	Aplikazio eremua.....	7
5.	Barne-kontrola.....	8
6.	Iruzzurraren aurkako batzordea	8
7.	Iruzzurraren aurkako batzordearen funtzionamendurako barne-araudia	10
8.	Iruzzurraren eta ustelkeriaren aurkako neurriak eta prozesuak	10
8.1.	Prebentzioa.....	11
8.2.	Detekzioa	14
8.3.	Zuzenketa eta jazarpena – Iruzzurrik gertatuz gero jarduteko prozedura	16
9.	Interes-gatazken egoerei buruzko neurriak eta prozesuak	18
9.1.	Prebentzioa eta detekzioa	19
9.2.	Zuzenketa eta jazarpena.....	22
9.3.	Interes-gatazkek kudeatzeko prozedura.....	23
10.	Planaren jarraipena eta ebaluazioa	25
10.1.	Jarraipena eta ebaluazioa	25
10.2.	Prozedurak eguneratzea	25
10.3.	Eguneratzeak edo aldaketak jakinaraztea eta zabaltzea	25
11.	Proposatutako neurrien laburpen exekutiboa	26

ERANSKINAK

0 eranskina. Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurriei buruzko autoebaluazioa.

I. eranskina – Iruzzurraren aurka borrokatzeko erakunde adierazpena.

II. eranskina – Arriskuaren ebaluazioa, eragina eta probabilitatea.

III. eranskina – Etika eta jokabide kodea.

IV. eranskina – Adierazleen katalogoa (bandera gorriak).

V.1-2 eranskina – Interes-gatazken politika.

V.3-4 eranskina – Interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA).

VI. eranskina – Interes-gatazkek saihesteko eta kudeatzeko orientabideak Finantza erregelamenduaren arabera.

VII. eranskina – Hirugarrenen konpromiso-adierazpena.

VIII. eranskina – Datuen lagapenaren eta tratamenduaren aitortzea

IX. eranskina – Estatuaren laguntzei eta finantzaketa bikoitzari buruzko erreferentzia.

1. Sarrera

COVID-19aren krisiaren testuinguruan, Europako Batzordeak estatu kideei laguntzeko egungo esparrua indartu du, tresna berritzaile baten bidez zuzeneko finantza-laguntzak emanez. Horretarako, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa sortu da (aurrerantzean, «Mekanismoa») estatu kideetan erreforma iraunkorrak eta lotutako inbertsio publikoak areagotzeko helburuarekin finantza-laguntza espezifiko, esanguratsu eta eraginkorra emateko.

Mekanismoa erabat integratuta dago Europako Sei hilekoan. Horretarako, estatu kideek suspertze- eta erresilientzia-planak egin dituzte -Espainiaren kasuan, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (SEEP) -, erreforma-programa nazionalen (EPN) zati gisa. Plan horiek inbertsio- eta erreforma-lehentasanak eta dagozkien inbertsio-paketeak ezartzen dituzte, mekanismoaren bidez finantzatuko direnak, laguntza epeka ordainduta, egindako aurrerapenen arabera eta aurrez definitutako erreferentzia-irizpideetan oinarrituta.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, zuzeneko kudeaketako erregimenean gauzatzea definitzen du, EBFTren 322. artikulua arabera onartutako arau egokiekin bat etorritik, bereziki Finantza Erregelamenduari eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/2092 Erregelamenduari (EB, Euratom). Planteamendu horrek berekin dakar berariazko tresnak diseinatzea eta prozedurak definitzen den esparrura egokitzea. Hala, Europako Batzordea zuzenean arduratzen da programa gauzatzeko etapa guztiez, bai aurkeztutako planen ebaluaziotik hasi eta ordainketak egin arte, bai eta programak nola gauzatzen diren kontrolatzeaz ere.

Horrela, SEEPen planteatutako ekimenak zehaztutako epean —2021etik 2026ra bitartean— gauzatzeko, Espainiako Administrazio Publikoek hainbat neurri hartu behar dituzte, besteak beste, kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitzea, eta, horrekin batera, Europako Batzordeko Zerbitzuei ordainketa eskaerak modu eraginkorrean izapidetzea erraztuko dien Kudeaketa Sistema bat eratu eta garatzea, eskatutako estandarren arabera, bai ikuspegi formaletik bai operatibotik. Era berean, estatu kideek —Mekanismoaren esparruan funtsen onuradun edo emaile diren aldetik— neurri egoki guztiak hartuko dituzte Batasunaren finantza-interesak babesteko eta funtsen erabilera, Mekanismoak finantzatutako neurrietan, Batasuneko eta estatuko Zuzenbide aplikagarria egokitzen dela zaintzeko, batez ere iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken prebentzioari, detekzioari eta zuzenketari dagokienez, bai eta kontrol-sistema eraginkor eta efiziente bat ezartzeko ere, oker ordaindutako edo oker erabilitako zenbatekoak berreskuratzeko aukera emango duena.

Horregatik guztiagatik, Espainiako Gobernuak Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioak irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua onartu du. Agindu horren bidez, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (aurrerantzean, Kudeaketa OG) kudeatzeko sistema prestatu da. Agindu horretan, SEEPa betearazteko Europako Erkidegoko araudiak ezarritako eskakizunak modu koordinatuan betetzen direla bermatzeko jarraibideak ezartzen dira, eta horietako bat iruzurra, ustelkeria eta interes-

gatazkek prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea da.

Hala, HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikulua araber, “SEEPeren neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzailerik edo betearazle orok iruzurraren aurkako neurrien plan bat izan beharko du, eta plan horrek bermatu eta deklaratu beharko du, dagokion jardun-eremuan, dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken prebentzioari, detekzioari eta zuzenketari dagokienez”.

ESKORIATZAKO UDALAK Iruzurraren aurkako Batzorde bat izango du balizko arriskuen jarraipena egiteko, aurrerago zehaztuko den bezala.

Dokumentu hau egiteko, Europako Batzordearen, Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren araudia eta jarraibideak hartu dira kontuan.

2. Terminoen glosarioa

Jarraian, glosario labur bat sartzen da dokumentu honetan gehien erabiltzen diren terminoekin, termino bakoitzaren irismena behar bezala interpretatzen eta ulertzen dela ziurtatzeko:

- **Iruzurra:** deklarazioak edo dokumentu faltsuak, okerrak edo osatugabeak erabiltzearekin edo aurkeztearekin zerikusia duen edozein ekintza edo ez-egite; informazio bat komunikatzeko berariazko betebeharra ez betetzea; eta/edo funts horiek beste helburu batzuetarako desbideratzea.
- **Ustelkeria:** mehatxu bereziki larria Batasunaren finantza-interesentzat, askotan iruzurrezko jokabide bati ere lotuta egon baitaiteke. Adibidez, funtzionario publiko baten irizpidean edo balorazio diskrezionalean eragiteko eroskeria ordaintzean, eroskeria horiek onartzea funtzionario publiko horren herrialdean edo dagokion nazioarteko erakundearen aplikagarriak diren legezko edo erregelamenduzko xedapenak gorabehera.
- **Interes-gatazka (IG):** finantza-eragileen eta betearaztean eta kudeaketan parte hartzen duten gainerako pertsonen eginkizunen lan inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidesun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik.
- **Irregularitasuna:** betearazpenean parte hartzen duen eragile ekonomiko baten ekintza edo ez-egite baten ondorioz Batasuneko Zuzenbidea edo haren aplikazioari buruzko zuzenbide nazionala urratzea, Batasunaren aurrekontuan eragin kaltegarria duena edo izan dezakeena justifikaziorik gabeko gastu-partida bat gozten zaiolako aurrekontuari.
- **Iruzurraren susmoa:** nazio mailako prozedura administratibo edota judicial bat eragiten duen irregularitasuna. Prozedura hori iruzurra nahita egin den ala ez zehazteko asmoz abiatzen da, bereziki hemen ezarritakoari dagokionez: 1995eko uztailaren 26ko kontseiluan ezarritako Europar Komunitateen finantza interesen babesaren inguruko Hitzarmenaren 1. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatia.
- **Kontrola:** estatu kideek ezarritako kontrol-sistemen funtzioa kudeaketa eraginkorra eta finantzarioa egiten dela bermatzea da. Horretarako, hainbat instantziek eragiketen kontrolak eta auditoretzak egingo dituzte, bai eta

kalitatearen egiaztapenak eta jarraipen- eta kontrol-sistemen auditoretzak ere.

- Egiaztapen-zerrenda edo check-lista:** izapide jakin bat formalizatzeko beharrezko betekizunen eta dokumentazioaren zerrenda jasotzen duen dokumentua. Baldintza horiek egiaztatzeko eta aipatutako dokumentazioa jasotzeko arduradunak bete beharko du, eta jasota gelditu dela ziurtatzeko sinatu eta data jarri beharko du.
- Bandera gorria:** alarma-seinalea, iruzur-arriskua egon daitekeela adierazten duen adierazlea.
- Erakunde erabakitzaila:** SEEPen aurrekontu-zuzkidura duten ministerio-sailak. Horiei dagokie erreformen eta inbertsioen plangintza eta jarraipena egiteko ardura, bai eta erreforma eta inbertsio horien mugarrak eta helburuak betetzeko ere.
- Erakunde betearazlea:** proiektuak (ministerio-sailak eta Estatuko Administrazio Orokorreko erakundeak- EAO) edo azpiproiektuak (ministerio-sailak, EAOko erakundeak, autonomia- eta toki-administrazioak eta sektore publikoko beste parte-hartzaile batzuk) erakunde erabakitzailaren irizpide eta jarraibideen arabera gauzatzeko ardura duen erakundea.
- Organo kudeatzailea:** erakunde betearazlearen eremuan, proiektuaren edo azpiproiektuaren kudeaketa-txostena egiteko, sinatzeko eta izapidetzeko ardura duen organoa.
- Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala (IAKZN):** Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiaren organoetako bat da, irailaren 19ko 802/2014 Errege Dekretuaren 4. artikulua 3. apartatuaren arabera. Dekretu horrek, besteak beste, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duen urtarrilaren 27ko 256/2012 Errege Dekretuaren 11. artikulua idazketa aldatzen du. Bere funtzioak abuztuaren 3ko 682/2021 Errege Dekretuaren 19.5.h) artikuluan jasotzen dira (682/2021 Errege Dekretua, abuztuaren 3koa, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duena eta urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua, ministerioetako sailen oinarrizko egitura organikoa ezartzen duena, aldatzen duena), bai eta azpizuzendaritza nagusiaren mailan ere (azpizuzendaritza horri dagozkio estrategia nazionalak sortzea eta abiaraztea zuzentzeko funtzioak eta Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko beharrezkoak diren lege- eta administrazio-aldaketak sustatzea; sistema nazionalak Europar Batasuneko funtsak kudeatzeko izan ditzaketen hutsuneak identifikatzea; erakunde nazionalen eta IBEBn artean irregulartasunei eta iruzur-susmoei buruzko koordinazio- eta informazio-bideak ezartzea; eta iruzurraren aurkako borrokarako eta prebentziorako prestakuntza sustatzea).
- Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa (IBEB):** Europar Batasuneko (EB) erakunde komunitarioek sortutako erakundea da, beren finantza-interesak babesteko. Bulego horren erantzukizun nagusiak honako hauek dira: EBko funtsei eragiten dieten iruzurrari eta ustelkeriari buruzko ikerketa independenteak egitea, EBko zergadunen dirua Europan hazkundea eta enplegua sor dezaketen proiektuetara bidera dadin zaintzeko; herritarrek Europako erakundeetan duten konfiantza indartzen laguntzea, EBko langileen edo EBko erakundeetako kideen hutsegite larriak ikertuz; eta EBn iruzurraren aurka borrokatzeko politika sendoa garatzea.

3. Planaren helburua

Iruzurraren aurkako neurrien plan honen helburua da Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan garatutako azpiproiektu eta jarduketei lotutako barneko zein kanpoko iruzurra murriztea.

Horrela, Planak modu espezifikokoan jorratuko ditu iruzur-arrisku nagusiak, kontuan izanda iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuak: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena. Era berean, alderdi interesdun guztiek beren erantzukizunak eta betebeharrak ondo ulertzen dituztela bermatuko du Planak, eta iruzurrari aurre egiteko planteamendu koordinatua hartu duela adierazten duen mezua helaraz diezaiela, erakunde barruan zein kanpoan, balizko onuradun guztiei.

Iruzur-arriskuaren ebaluazioa, prebentzio- eta detekzio-neurri egokiak eta ESKORIATZAko Udalak une egokian koordinatutako ikerketa konbinatuz gero, iruzur-arriskua nabarmen murriztuko da eta disuasio-metodo garrantzitsua izango da.

Kudeaketako OGaren 6.5 artikuluko zehaztapenen arabera, iruzurraren aurkako neurrien plan honek gutxienezko baldintza hauek ditu:

- a) Iruzurraren aurkako neurriak proportzionalki egituratzea “iruzurraren aurkako zikloaren” funtsezko lau elementuen inguruan: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.
- b) Iruzur-arriskuaren arriskua, eragina eta probabilitatea ebaluatzea aurreikustea (II. eranskina – Kudeaketako OGaren II.B.5 eranskina da), Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko funtsezko prozesuetan, eta aldian-aldian horiek berrikustea, bi urtean behin edo urtean behin, iruzur-arriskuaren arabera. Edonola ere, iruzur-kasuren bat detektatzen den bakoitzean edo prozeduretan edo lan-taldean aldaketa adierazgarririk dagoenean egingo da.
- c) Prebentzio-neurri egokiak eta proportzionatuak definitzea, egoera zehaztutara egokituak, iruzurraren hondar-arriskua maila onargarri batera murrizteko.
- d) Alerta-seinaleekin bat datozen detekzio-neurriak aurreikustea eta neurri horiek eraginkortasunez aplikatzeko prozedura zehaztea.
- e) Iruzur-kasu susmagarri bat detektatzen denean hartu beharreko neurri zuzentzaileak zehaztea, iruzur-susmoak jakinarazteko mekanismo argiekien.
- f) Iruzur kasu susmagarrien jarraipena egiteko eta iruzurra eginda gastatutako Suspertze- eta Erresilientzia-Mekanismoa berreskuratzeko prozesu egokiak ezartzea.
- g) Gertatutako iruzurrarekin edota gerta daitekeenarekin erlazionatutako prozesu, prozedura eta kontrolak berrikusteko jarraipen-prozedurak definitzea, eta iruzur-arriskuaren ebaluazioaren berrikuspenean ere txertatzea.
- h) Interes-gatazken egoerak prebenitzeari eta zuzentzeari buruzko prozedurak definitzea, EBko Finantza Erregelamenduen 61. artikuluen 1. eta 2. Idatz-zatietan ezarritakoaren arabera. Zehazki, nahitaezkoa izango da interesik ezaren adierazpena sinatzea (V.2 eranskina) SEEPeren exekuzio-prozeduretan parte hartzen dutenek, hierarkian gorago dagoenari edozein interes-gatazka egon daitekeela jakinaraztea eta hark kasu bakoitzean dagokion erabakia hartzea.

Iruzurraren aurkako Neurrien Plan hau honako hauen mende dago: 2017/1371 (EB) Zuzentaraua, Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzkoa; 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta

Kontseiluarena, 2018ko uztailaren 18koa, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoa (aurrerantzean, EBko Finantza Erregelamendua); eta 11/2021 Legea, uztailaren 9koa, iruzur fiskala prebenitzeko eta horren aurka borrokatzeko neurriei buruzkoa.

Azkenik, Plana egiteko, erreferentzia gisa hartu dira bai “Guidance Note on fraud risk assessment for 2014-2020”, arriskuaren aurkako neurri eraginkor eta proportzionatuak garatzen dituen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 125.4 c) artikulua aplikatuz; bai Batzordearen (2021/C 121/01) Komunikazioa, interes-gatazkako egoerak Finantza Erregelamenduaren arabera saihesteko eta kudeatzeko moduari buruzkoa.

4. Aplikazio eremua

ESKORIATZAKO Udala erakunde betearazlea da SEEPeren araudian. HFP/1030/2021 Aginduko 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, erakunde betearazle orok iruzurraren aurkako plan bat izan beharko du. Beraz, plan honetan jasotako printzipioak, neurriak eta jarduerak ESKORIATZAKO Udaleko organo kudeatzaileei aplikatuko zaizkie, bai eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kontura finantzatutako azpiproiektu, jarduketa eta jardueren kudeaketaren arduradunei ere, horiekin zerikusia duen edozein fase edo prozesutan, zuzenean edo zeharka, parte hartzen badute.

Beraz, Plan hau ESKORIATZAKO Udal osoari aplikatu dakioke, hau da, Toki Administrazioari, bere erakunde autonomoi eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoetik datozen funtsak kudeatzen edo gauzatzen dituzten ESKORIATZAKO Udalari atxikitako sektore publiko instituzionaleko edozein erakunderi. Eskoriatzako Udalari atxikitako erakundearen araubide juridiko eta instituzionalaren berezitasunak eta gauzatu ditzaketen proiektuen berezitasunak kontuan hartuta, azpiproiektuen eta jarduketaren ardura duten organo kudeatzaileek beharrezkotzat jotzen dituzten espezialitateak ezarri ahal izango dituzte Plana beraien eremura egokitzeko, betiere egokitzapen horiek ez badatoz bat Planean ezarritako printzipioekin.

Funtsezkoa da Plan honen barruan erantzukizun-mailak ondo definituta geratzea, batez ere kontrolari dagokionez:

- **1. maila – Organo betearazlearen barne-kontrola:** Mekanismoaren barruko jarduera bat gauzatzearekin lotutako edozein administrazio-jardueraren lehen mailako eta oinarritzko kontrola da. Bere xedea da Administrazio-prozedura arruntan bidez eskatzen diren legezko eskakizunak, helburuak eta finantza-kudeaketa egokia betetzeari buruzko kudeaketan segurtasuna ematea. Iruzurraren aurkako Batzordea arduratuko da lehen kontrol horretaz (ikus Plan honen 6. atala).

Berriazko katalogo bat egingo da, arriskua detektatzeko eta ebaluatzeko metodologia jasoko duena jarduketa mota guztiak kontuan hartuta.

- **2. maila – Organo independentearen barne-kontrola:** Administrazio jarduleetatik (Kontu-hartzaile Orokorrak eta Zerbitzu Juridikoak; erakunde publikoetako kontrol-organoko baldintza independenteak) independenteak diren barne-kontrolako organoek, gastua kudeatzen duten organoekiko modu independentean jarduten dutenak, agindutako kudeaketa-kontrola da. Bere jarduketaren artean daude kontratazio-mahaietan parte hartzea; dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien aurretiko txostenak; legezketasunaren kontrola eta gastua betearazteko egintzen aurretiko fiskalizazioa, nahitaezkoa eta loteslea dena.

- **3. maila – Ex post auditoretzak eta kontrolak:** Beste bien ganean jarduten duen finantza-kontrola da, erabateko autonomiarekin kudeaketa kontrolatzen zaion organo edo erakundearekiko. Mekanismoa Kontrolatzeko Agintaritza gisa (Administrazio Publikoa modernizatzeko eta SEEPa betearazteko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 21. artikulua araberan), Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiaren (IGAE:) erantzukizuna da, hiri eta autonomia-erkidegoetako kontu-hartzailetza orokorrekin lankidetzan, beharrezkoa denean.

5. Barne-kontrola

Europako Erkidegoko araudian xedatutakoaren eta finantza-kudeaketa onaren printzipioaren arabera, ESKORIATZAKO Udalak SEMeren funtsak kudeatzeko eta/edo gauzatzeko lanak egingo ditu, barne-kontrol eraginkor eta efiziente bati zorrotz lotuta, egikaritze-metodo bakoitzari egokituta eta sektore publikoaren barne-araudia erabat betez eta errespetatuz.

Eskoriatzako Udalean ezarritako barne-kontrolerako neurrien printzipio gidaria, neurri horiek egokiak eta eraginkorrak direla ziurtatze aldera, nazioarteko eta sektoreko jardunbide egokiak betetzea izango da, bereziki honako elementu hauek barne hartuta:

- a) kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-jardueretan eginkizunak eta erantzukizunak bereiztea;
- b) arriskuak kudeatzeko eta kontrolatzeko estrategia egokia, SEMeren funtsen onuradunen kontrolak barne hartzen dituen;
- c) interes-gatazken prebentzioa;
- d) ikuskapen-ebidentzia egokiak eta datuen osotasuna datu-sistemetan;
- e) eraginkortasuna eta efizientzia gainbegiratzeko prozedurak;
- f) barne-kontrolari dagokionez antzemandako akatsen jarraipena egiteko prozedurak;
- g) iruzurraren aurkako neurrien plan honetan jasotako neurrien funtzionamendu egokia aldizka ebaluatzea.

6. Iruzurraren aurkako batzordea

Iruzurraren aurkako Batzordea arduratzen da iruzurraren aurkako neurriak behar bezala aplikatzeaz prebentzioaren, detekzioaren eta erreakzioaren arloan. ESKORIATZAKO Udaleko Iruzurraren aurkako Batzordea 2022ko irailaren 27an eratu zen.

Iruzurraren aurkako Batzordea diziplina anitzeko kide anitzeko organoa da, eta SEMeren funtsen kudeaketan eta/edo gauzatzean inplikaturako unitate, sail, zerbitzu edo arloetako kideek osatzen dute, honako hauek kudeatzeko prozesuen faseetan:

- Dirulaguntzak.
- Kontratazioa.
- Hitzarmenak.

Benetako kontrola bermatzeko, iruzurraren aurkako Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- Idazkaria-kontuhartzailea-diruzaina: Edurne Iturbe
- Arlo ekonomikoko teknikaria: Maria Pilar Belategi
- Kontuhartzailletza teknikaria: Maria Pilar Biain
- Ingurumen teknikaria: Saio Altzua

Hauek izango dira Iruzuraren aurkako Batzordearen eskumenak:

- Legezko xedapenak eta ESKORIATZAKO Udalaren barne-arauak betetzen direla une oro gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- ESKORIATZAKO Udalean iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken aurrean kultura etikoa eta zero tolerantziakoa ezartzea eta etengabe bultzatzea.
- Iruzuraren aurkako neurrien plana egitea, kudeatzea eta eguneratuta edukitzea, ezarritako kontroltan arrisku-egoerak edo akatsak, plana ez betetzeak edo SEMeren funtsen kudeaketan parte hartzen duten langileek ESKORIATZAKO Udalean izandako jokabide irregularrak antzemateko.
- Iruzuraren aurkako neurrien planari, planaren garapenari eta gauzatze praktikoari buruzko dokumentazioa zaintzea, bai eta SEMek ESKORIATZAKO Udalean dituen funtsen kudeaketan sortutako informazio dokumentatu guztia ere.
- SEMeko funtsak kudeatzen eta/edo gauzatzen parte hartzen duten Eskoriatzako Udaleko langile guztien jarduerak gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- Iruzurak, ustelkeria eta/edo interes-gatazkek prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta horien aurrean erreakzionatzeko neurriak ezartzea.
- SEMeren funtsak kudeatzen eta/edo gauzatzen parte hartzen duten ESKORIATZAKO Udaleko langile guztiak sentsibilizatzea, informatzea eta prestatzea iruzurrak, ustelkeriak eta interes-gatazkek prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko.
- Iruzuraren aurkako planean ezarritako neurriak ez betetzea, behar bezala eta proportzionalki, zigortzen duen diziplina-araubidea aplikatzen dela ziurtatzea.
- ESKORIATZAKO Udaleko langileen artean salaketan kanala ezartzea eta ezagutaraztea. Iruzur, ustelkeria eta interes-gatazka posibleak behar bezala detektatzen eta ikertzen direla eta horiei amaiera ematen zaiela zaintzea.
- Bidegabe jabetu diren funtsak berreskuratzen direla ziurtatzea, onuradunek behar ez bezala jasotako zenbatekoak berreskuratzen direla zaintzeko ardura duten erakunde edo organismoen beharrezko informazioa emanez.
- Agintaritzaren erabakitzaileari eta/edo betearazleari iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken zantzuak edo ebidentziak jakinaraztea.
- Beharrezkoa izanez gero, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek salatzea agintari eskudunei, Ministerio Fiskalari eta/edo auzitegiei.
- Iruzuraren aurkako Batzordeak bere eskumenen esparruan egindako jardueren urteko memoria egitea.
- Era berean, arauketari, arloko arauak betetzeari eta kontrolari buruzko edozein gairi buruzko etorkizuneko araudien gaineko jarraipena eta ikuskapena egiteko eskumenak hartuko ditu bere gain.

Iruzuraren aurkako Batzordeak, bere eginkizunak betetzean, ESKORIATZAKO Udaleko beste organo, sail, arlo eta pertsona batzuen laguntza eskatu ahal izango du, baita kanpoko aholkulariarena ere.

7. Iruzuraren aurkako batzordearen funtzionamendurako barne-araudia

Iruzuraren aurkako batzordea urtero bilduko da SEEPa indarrean dagoen bitartean, berehalako erabakia eskatzen duen garrantzi bereziko gai bat gertatu delako premiazko ezohiko bilera bat deitu behar ez bada behintzat.

Iruzuraren aurkako batzordearen bileren deialdia eta garapena, bai eta bileren akta ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 49/2015 Legean eta gainerako xedapen aplikagarrietan xedatutakoaren arabera egingo dira.

Aurrekoari kalterik egin gabe, bileretako aktak bilera horretara bertaratu diren iruzurraren aurkako batzordeko kide guztiek sinatu beharko lituzkete, eta gutxienez honako hau jaso beharko lukete:

- Gai-zerrenda.
- Iruzuraren aurkako Planean nabarmentzeko moduko gertakariak.
- Horri buruz hartutako erabakiak, hala badagokio.
- Iruzuraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken ondoriozko eragiketa susmagarrien analisiaren laburpena, baita hartutako erabakiena eta, hala badagokio, agintaritza erabakitzaile edo betearazleari eta/edo agintaritza publiko eskudunari egindako jakinarazpena ere.

Aktak, aztertu diren gainerako dokumentazioarekin batera, artxibatu eta zaindu egin beharko dira.

Nolanahi ere, iruzurraren aurkako batzordearen bileretara joaten direnek isilpean gordeko dituzte batzorde horren erabakiak, eta ez dute informaziorik, daturik edo txostenik ezagutzera emango beren karguetan ari direnean, ez eta beren edo hirugarrenen onurarako erabili ere. Betebehar horiek bere horretan iraungo dute, nahiz eta beren eginkizunak betetzeari utzi.

Aldian behingo bileren kalterik gabe, iruzurraren aurkako batzordeko kideek etengabeko harremana izan beharko dute, kasuan-kasuan Plan honen arabera esku hartzea eskatzen zaien erabakiak hartzeko.

8. Iruzuraren eta ustelkeriaren aurkako neurriak eta prozesuak

Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzko 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera (Zigor Kodearen 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen 1/2019 Lege Organikoaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora ekarrita), gastuen arloko iruzurtzat hartzen da honako hauei buruz nahita egindako edozein ekintza edo ez-egite:

- a) Aitorpen edo agiri faltsuak, okerrak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, Europar Batasunaren aurrekontu orokorretik edo Europar Batasunak administratutako aurrekontuetatik datozen funtsak bidegabe jasotzea edo atxikitzea dakartenak.

- b) Ondorio bera duen informazio bat komunikatzeko berariazko betebeharra ez betetzea.
- c) Funts horiek desbideratzea, hasiera batean eman ziren helburuez bestelako helburuetarako.

Aipatutako 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 7. artikuluan zehapen-araubidea ezartzen da nahita egiten diren arau-hauste penaletarako. Zigor Kodeak nazio-mailan aplikatu beharreko zehapen-araubidea jasotzen du.

Eskoriatzako Udalak iruzurraren aurkako Plan hau egin eta bertan jasotako prebentzio-, detekzio- eta zuzenketa-neurriak definitu aurretik, iruzur-arriskuaren ebaluazioa egin du. Aldez aurreko ebaluazio hori 0 eranskin gisa erantsi da.

SEEPeren jarduketak gauzatzen parte hartzen duten Eskoriatzako Udaleko erakunde, agintari eta langileek, iruzurraren aurkako neurri proportzionatuak aplikatu beharko dituzte.

Iruzurraren aurkako neurrien sistema iruzurraren aurkako borrokaren zikloa osatzen duten ondorengo oinarrizko eremuetan oinarrituta egituratzen da, iruzurra ahal beste murrizteko: prebentzioa, detekzioa eta zuzenketa eta jazarpena.

8.1 Prebentzioa

Iruzurraren hondar-arriskua murrizteko helburuarekin, honako prebentzio-neurri hauek aplikatuko dira:

- **Iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzionala – I. eranskina**

ESKORIATZAKO Udalak, Udalbatzarraren bitartez, iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala sinatu du eta bere web orrian argitaratuko da. Plan hau onartzeak berekin dakar aipatutako adierazpena sinatzea.

Dokumentu honen I. eranskinean iruzurraren aurkako adierazpen instituzional bat erantsi da.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatutako azpiproiektuak eta jarduerak kudeatzen eta gauzatzen parte hartzen duten ESKORIATZAKO Udaleko agintari guztiek adierazpen instituzionala beteko dute, organo kudeatzaileak iruzurraren aurkako borrokan estandar etiko gorenak lortzeko konpromisoa hartzen duela argi eta garbi adierazten duena.

- **Iruzurraren aurkako konpromisoa laguntzen jakinarazpenetan**

Laguntzen azken onuradunen iruzurraren aurka borrokatzeko konpromisoa nahitaez transmitituko da laguntzak eman izanaren jakinarazpenen eta kontratuen bidez. Onuradunek Europako, nazioko eta autonomia-erkidegoko araudian ezarritako iruzurraren aurkako neurri guztiak betetzeko konpromisoa adierazi behar dute, bai eta plan honetan jasotakoak ere. Kontratazioa denean, nahitaezkoa da **Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)** aurkeztea.

- **Eraginaren ebaluazioa eta arriskuaren probabilitatea – II. eranskina**

Arriskuaren ebaluazio proaktiboa, egituratua eta espezifikoa da, eta ESKORIATZAKO Udaleko organo kudeatzaile bakoitzak bete beharko du. Prozesuetan iruzur arrisku gehien duten zatiak identifikatzeko, kontrolatzeko eta hautemandako arrisku-mailaren arabera beharrezko neurri proportzionatuak hartzeko balioko du. Horretarako, kudeatzaile guztiek arriskuen autoebaluazioak egingo dituzte, eta azpiproiektuen arduradunek, kudeaketako barne-kontrolak kontrol-plan baten arabera, bai eta emaitzen txostenen aldizkako eguneratzeak ere bi urtean behin edo urtean behin, iruzur-arriskuaren arabera.

Gainera, aurrerago azalduko dugun datuak egiaztatzeko eta gurutzatzeko neurri zehatzak barne hartzen ditu datuak lortzeko, biltegitratzeko eta aztertzeko prozesuak eragina ebaluatzeko eta arrisku handiko egoerak detektatzeko .

Eraginaren eta arriskuaren probabilitatea autoebaluatzeko eredu bat eskaintzen da, neurrian esku hartzen duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek bete beharrekoa (II. eranskina).

Kudeatzaile guztientzako barne-kontrolako plana instrukzio bidez garatuko da, estatuko eta Europako agintariek horri buruz emandako araudiari eta gomendioei eta SEEPerako berariaz emandakoei jarraituz.

- **Etika eta jokabide kodea – III. eranskina**

Eskoriatzako Udalak Kode Etiko bat dauka goi-kargudunentzat eta ESKORIATZAKO Udalaren zerbitzura dauden gainerako langileentzat. Kode horretara atxiki beharko dira SEEParen exekuzioan, erakunde betearazle gisa, parte hartzen duten pertsona guztiak.

Etika eta Jokabide Kode baten helburua izango da iruzurgileak uxatzea eta Eskoriatzako Udaleko agintariek eta langileek ahalik eta konpromiso handiena hartzea iruzurrari aurre egiteko, bai eta zuzentasuna, objektibotasuna, kontu-ematea eta zintzotasuna sustatzeko ere.

- **Prestakuntza eta sentsibilizazioa**

Iruzurraren aurka borrokatzeko politikei buruzko jardunaldi, tailer eta/edo prestakuntza-ikastaroetan, teorikoetan zein praktikoetan, parte hartzea sustatuko da. Jardunaldi, tailer eta/edo ikastaro horiek Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzaturako azpiproiektuak eta jarduerak kudeatzen eta gauzatzen parte hartzen duten ESKORIATZAKO Udaleko agintariei eta langileentzat izango dira.

Prestakuntza-ekintza guztiak ezagutzak eskuratzerara eta transferitzera bideratuta daude, eta honako informazio eguneratua eta Europako Batzordeak emandako informazioarekin lerrokatua jasoko dute:

- Arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea, kontrol espezifikokoak ezartzea eta iruzurrik antzemanez gero jardutea.
- Alderdi interesdun bakoitzaren eginkizuna eta erantzukizunak, alderdi bakoitzaren betebeharrak behar bezala ulertzen direla bermatuz.
- Jakinarazpen-prozedurak.
- Informazio hori guztia partekatuko den intraneteko atalera sartzea.

- Argitalpenak informazio-buletinetan, karteletan, edo bilera ofizialen gairerrendan sartzea.
- Agintariek eta langileek jakinarazi beharreko egoeren adibideak, esate baterako, iruzurrezko portaeraren susmoak edo noiz kontrolatu behar zen.
- Jakinarazpena: modu konfidentzian, erakunde betearazlearen errepresaliarik gabe jakinarazpena egiten duen pertsonaren aurka.
- Egindako jakinarazpenari erakunde betearazleak emandako erantzunaren jarraipena.

Prestakuntza-jarduera guztien edukia beren lanetatik portaera horiek detektatzeko moduan dauden ESKORIATZAKO Udaleko langile guztiei zabalduko zaie.

- **Kudeaketa eta barne-kontrola (barne-kontrola 5. puntua errepikatzen du)**

Eskoriatzako Udalaren proiektuak kudeatzen dituzten organoek barne-kontrola jarduerak egingo dituzte, hala nola, gainbegiratzea, egiaztatzea eta jarraipena, arriskuen ebaluazioan identifikatu diren arriskuak eraginkortasunez arintzera bideratutako erantzun proportzionatu gisa gauzatzeko diseinatuak. Aldizka egingo da, ebaluazioan hautemandako arrisku-mailaren arabera.

Zehazki, kudeaketa egiaztatze jarduerak arriskuak izango ditu ardatz. Egiaztapenen ardura duten langileek Europako Batzordeak eta Estatuak iruzurraren adierazleei buruz emandako orientabideak ezagutu behar dituzte.

Jarduera horiek aldi-aldi eta II. eta III. mailako kontrol-organoekin koordinatuta egingo dira, iruzurraren adierazleei buruzko Europako Batzordearen orientabideekin eta estatu- eta autonomia-mailako orientabideekin bat etorritik.

Iruzurrari aurrea hartzeko, kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-jardueretan eginkizunen eta erantzukizunen banaketa argitu eta bereizi behar da organo kudeatzaile guztietan.

Alderdi interesdun guztiek beren erantzukizunak eta betebeharrak behar bezala ulertzen dituztela bermatzeko, berriazko atal bat gehitu da prestakuntza-jardueretan.

Barne-kontrolaren barruan, kontuan hartuko dira neurrian parte hartzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikok egin ditzakeen arrisku handieneko jarduerak.

- **Barne-auditoretzak**

ESKORIATZAKO Udaleko organo kudeatzaileek barne-kontrolak egingo dituzte Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kontura finantzaturako azpiproiektuak, eragiketak edo jarduerak hautatzeko prozesuetan. Horietan, anomalien azterketa zehatzak egingo dira, barne-kontrola organo independentearekin koordinatuta (II. maila).

Auditoretza horien ondorioz, eta arrisku-maila dela-eta beharrezkotzat jotzen den kasuetan, kontrol-txostenak egingo dira. Txosten horietan, aldi batean izandako irregulartasun, iruzur-susmo eta iruzur guztiak islatuko dira, Kontrol Agintaritzak ezartzen duenaren arabera. Kontrol-txostena egiteko, ESKORIATZAKO Udalak abian diren arriskuen ebaluazioetan lortutako emaitzak hartuko ditu abiapuntu, eta emaitzen txostenak eskatu ahal izango ditu beharrezkotzat jotzen bada.

Arriskuen ebaluazioa egin bada, ESKORIATZAKO Udalak beharrezkotzat jotzen dituen emaitzen txostenak eskatu ahal izango dizkie neurrian parte hartzen duten pertsona fisiko eta juridikoei.

8.2 Detekzioa

Irregularitasun bat identifikatu ondoren, irregularitasun hori iruzur bat izan daitekeen zehaztu beharko da, iruzurtzat hartuta nahita egindako egintza edo omisioa antzemandako irregularitasunari dagokionez.

Hauek izango dira detektatzeko mekanismo, tresna eta neurriak:

- **Datuak egiaztatu eta gurutzatzea**

Datuen babesari buruzko legediaren mugen barruan, ESKORIATZAKO Udalak sustatuko du arriskuak ebaluatzeko datuak lortzeko, biltegitatzeko eta aztertzekeo prozesuak optimizatzen dituzten tresnak erabiltzea, datuak sektoreko beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin gurutzatzea (hala nola, zerga-administrazioa, administrazio publikoetako beste erakunde batzuk edo kreditua egiaztatzekeo ardura duten agintariak) eta arrisku handiko egoerak detektatzea, baita funtsak eman aurretik ere.

Horretarako, ESKORIATZAKO Udaleko agintariak eta langileek barne-tresnak erabiliko dituzte, bai eta datu-baseak ere, hala nola Dirulaguntzen Datu Base Nazionala (BNDS), datuen prospekziarako tresnak («data mining») edo arriskuen puntuaziorako tresnak, hala nola Europako Batzordeak emandako eta landutako ARACHNE izenekoa, funtsetan iruzur-arriskua identifikatzeko eta ebaluatzeko eremu gatazkatsuenetan, hala nola kontratazio publikoa alerta-adierazleek bidez eta iruzurraren aurkako neurriak diseinatzekeo.

- **Komunikazio-sistema**

ESKORIATZAKO Udaleko langileek iruzur, ustelkeria edo interes-gatazken susmoa badute, berehala jakinarazi beharko diote Iruzuraren aurkako Batzordeari, salaketa-kanalaren bidez. Batzordeak berehala aztertuko du jasotako informazioa, eta, hala badagokio, agintaritza erabakitzaileari jakinaraziko dio.

Horrez gain, ESKORIATZAKO Udaleko langileek iruzurraren aurkako plan honetan ezarritako neurriak eta Etika eta Jokabide Kodean (III. eranskina) definitutako jardueraprintzipioak ez betetzea dakarten irregularitasunen, delituzko presuntzioa duten jokabideen edo jarduketan berri eman behar dute.

Horretarako, ESKORIATZAKO Udalak **salaketa-kanal** bat ezarri du, eta langile guztiei jakinarazi zaie. Kanal horren bidez, lehenasunez jakinarazi ahal izango dituzte jakinarazpen horiek. Salaketen kanalean jasotako komunikazioak Iruzuraren aurkako Batzordeak kudeatuko ditu.

Hala ere, langileek, SEMaren funtsen onuradunek edo hirugarrenek eskura duten beste edozein bitartekoren bidez egin ahal izango dituzte salaketak (postontziak, telefonoz edo ahoz), ESKORIATZAKO Udalari informazio hori modu fidagarrian helarazi ahal izatekeo.

Jakinarazpena bidaltzerakoan, datu hauek jaso beharko dira:

- Arriskuen edo ez-betetzeen informatzailearen izen-abizenak. Hala ere, ESKORIATZAKO

Udalak edozein jakinarazpen edota salaketa modu anonimoan izapidetuko du.

- Informazioa eskuratzeko modua eta informazio horren egiazkotasuna.
- Gertaeren deskribapena, ahalik eta modu zehatzenean.
- Ahal den guztietan, gertakarietan parte hartu duten pertsonak identifikatuta.
- Ustezko irregulartasunak edo iruzurrak eragindako negozioak, deialdiak, tresnak edo espedienteak.
- Gertakariak gertatu ziren data zehatza edo gutxi gorabeherakoa.
- Laguntzak kudeatu dituen organoa edo erakundea.
- Hala badagokio, informazioa bidali zaien organo edo erakundeak.

Komunikazioarekin batera, ahal denean, jakinarazitako egitateak egiaztatzea eta egitate horiei buruz dagozkien jarduketak egitea erraztuko duen edozein dokumentazio edo froga-elementu aurkeztu ahal izango da.

Jasotako barne-komunikazioen konfidentzialtasuna da ESKORIATZAKO Udalean ezarritako salaketa-kanalaren funtsezko oinarria, eta, nolana ere, informazioa ematen duenaren nortasunari eta emandako informazioari, eragindako pertsonari eta horietan aipatutako hirugarrenei buruzko konfidentzialtasuna bermatzen du, salbu eta legean ezarritakoaren arabera agintari judizialek eskatzen dutenean eta lege horietan ezarritako babes guztiekin.

ESKORIATZAKO UDALAK komunikazio hori jaso izanaren agiria bidaliko dio jakinarazpena egiten duen pertsonari, jasotzen duenetik gehienez ere 7 eguneko epean. Era berean, jakinarazpena egiten duenari horren jarraipenean egindako jardueren eta hartutako erabakiaren berri emango dio, kontrakoa xedatzen duen araurik ez badago.

ESKORIATZAKO Udalak bermatzen du ez duela errepresaliarik hartuko, fede onez eta legez ezarritako parametroen arabera, Legearen eta/edo barne-araudiaren aurkako jokabide edo jokabide-itxura horien berri ematen duenaren aurka, eta horrek ez duela informazioa jakinarazteari buruzko murrizketarik urratuko.

Aurreko hori, komunikatzaileak agintari eskudunek ezarritako salaketa-kanalen eta salaketa-kanal publikoen bidez jakinarazteko duen eskubidearen kalterik gabe.

Iruzurraren aurkako Batzordeak erantzunik ematen ez badu, jarduketa susmagarrien eta/edo irregulartasunen berri ematen dutenek Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalak (SCNA) ondorengo web helbidean horretarako prestatutako kanalaren bidez jakinarazi ahal izango dituzte jarduketa edo irregulartasun horien berri:

<http://www.igae.pap.minhfp.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/ComunicacionSNCA.aspx>.
Salbuespen gisa, bitarteko hori erabiltzea ezinezkoa bada, honako hauek erabili ahal izango dira:

Posta helbidea:

*Servicio Nacional de Coordinación Antifraude
Intervención General de la Administración del Estado
Ministerio de Hacienda y _Función Pública
Calle María de Malina 50, planta 12. 28006 -Madrid*

Telefonoa: 915.367.515.

- **Adierazleen katalogoa (bandera gorriak) – IV. eranskina**

Dokumentu honen IV. eranskin gisa, iruzurrik dagoen zehazteko “bandera gorri” izeneko adierazleen zerrenda erantsi da. Adierazle horiek iruzurrezko jarduera bat gertatzen ari dela ohartarazten dute, eta berehala erreakzionatu behar dela ekintzarik behar den ikusteko.

Europako Batzordeak informazioa eman die estatu kideei katalogo hori egiteko. Informazio hori iruzur-arriskuak detektatzeko egoeran dauden langile guztiei jakinarazi behar zaie. Bereziki, onuradunen jarduerak ikuskatzea beraien funtzioen artean dituzten pertsona guztiek ezagutu behar dituzte adierazle horiek (adibidez, dokumentuetan eta tokian bertan egiaztapenak egiten dituztenek edo bestelako jarraipen-bisitak egiten dituztenek).

Horretarako, jarduera-tipologia bakoitzari egokitutako adierazleen (bandera gorriak) katalogo espezifikoak egingo da.

8.3 Zuzenketa eta jazarpena – Iruzurrik gertatuz gero jarduteko prozedura

Iruzurraren aurkako Batzordea da salaketa-kanala kudeatzeaz arduratzen den organoa eta jasotako komunikazioen hartzailea.

Salaketak egiteko kanalaren bidez jakinarazpen bat jasotzen denean edo beste bideren batetik jakin denean, baita kanpotik ere, Eskoriatzako Udaleko langileren batek edo SEMaren funtsak kudeatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen den hirugarren batek edo onuradun edota kontratistaren batek iruzurrezko jokabidea edo susmagarria izan duela, Iruzurraren aurkako Batzordeak horren larritasuna aztertu eta tramitatu egingo du.

Usteko iruzur kasu bat detektatu eta aurreko puntuko komunikazio-sisteman ezarritako prozeduren arabera jakinarazi ondoren (Europako Batzordearen eskakizunekin eta barne-baldintzekin lerrokatuta), organo kudeatzaileek baloratuko dute ikerketa bat abiarazi behar den ala ez, eta bidezkoa den bidegabe jasotako diruak berreskuratzeko prozedura eta zigor prozedura hastea.

Kudeaketako OGaren 6.6 artikuluko zehaztapenen arabera, iruzur bat edo susmo funtsatu bat detektatu ondoren, ESKORIATZAKO Udalak, eta zehazki, organo kudeatzaileek, **urrats hauek egin beharko dituzte nahitaez:**

➤ Iruzurraren ebaluazioa eta sailkapena

ESKORIATZAKO Udalak iruzurraren eragina ebaluatuko du, eta, besteak beste, neurriko edozein parte-hartzailek aurkeztutako ebaluazio-txostenetan oinarrituko da. Iruzurraren eraginaren ebaluazioa eta kalifikazioa sistemiko edo puntual gisa zehaztuko dira:

- Iruzur sistemikotzat hartuko da iruzurra behin eta berriz eta antzeko prozeduretan egin dela frogatzen duten ebidentziak daudenean.
- Iruzur puntualtzat hartuko da gertaera isolatua dela eta beste batzuetan errepikatu ez dela ikusten denean.

➤ Jarduera berrikustea eta etetea

Nabarmendu behar da iruzur bat detektatuz gero, edo iruzur horren susmo funtsatua

izanez gero, berehala etengo dela Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatuta dagoen azpiroiectua edo jarduketa.

Hori dela eta, ESKORIATZAKO Udalak iruzurrarekin zerikusia eduki zezaketen azpiroiectu edo ekintza-lerro guztiak berrikusi beharko ditu, bai eta esku-hartzaileek horiekin lotuta aurkeztu ahal izan duten dokumentazio guztia ere, eta, nolana ere, iruzurrak eragindakoak eta mekanismoak finantzatutakoak edo finantzatuko dituenak kendu beharko ditu.

➤ **Jazarpena**

ESKORIATZAKO Udalak konpromisoa hartzen du iruzurra edo horren susmo arazoitua ahalik eta lasterren jakinarazteko, bai erakunde interesdunei bai jarduketak egiten inplikaturako erakundeei.

Erakunde interesdunak hauek izango dira: Iruzurraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala (IAKZN), Iruzurraren Aurkako Europako Bulegoa (IAEB), fiskaltza eta auzitegi eskudunak. Inplikaturako erakundeak, berriz, erakunde betearazlea eta organo kudeatzaileak izango dira.

Hona hemen ESKORIATZAKO Udalaren betebeharrak:

- ✓ Gertaturako gertaeren eta hartutako neurrien berri ematea jarduketak gauzatzea agindu dion erakundeari. Kasu honetan, ESKORIATZAKO Udalak, erakunde betearazlea den aldetik, erakunde erabakitzaleari jakinaraziko dio gaia, eta erakunde horrek agintaritza arduradunari jakinaraziko dio. Agintaritza arduradunak egokitzat jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du jarraipena egiteko eta Kontrol Agintaritzari jakinarazteko.
- ✓ Gertakariak salatzea, hala badagokio, agintari eskudunei, IAKZNERi, balora ditzaten eta IAEBi jakinaraz diezazkion.
- ✓ Informazio erreserbatua hastea erantzukizunak argitzeko edo diziplina-espeditente bat hasteko.
- ✓ Gertakariak fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean salatzea bidezko kasuetan, kasua instantzia judizialetera igortzeko erabakia babestuko duen iruzurraren aurkako Batzordearen txosten juridiko baten bidez.

➤ **Informazio erreserbatua eta diziplina-espeditentea**

Iruzur-kasu potentzial edo baieztatutako baten aurrean, informazio erreserbatutako prozedura bat izapidetuko da, kasuan kasuko kasuaren azterketa sakona egiteko. Prozedura horretan, egin beharreko jarduketa, froga eta ebazpen guztiak dokumentatu beharko dira.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 55. artikulua ezartzen duen bezala, prozedura hau aurretiazko urratsa da, hala badagokio, diziplina-prozedura bat irekitzea erabakitzeko, diziplina-espeditenteak goizegi irekitzea saihestuz, salatutako gertakariak errealitatearekin batere alderatu gabe.

Isilpeko informazioa ez da diziplina-espeditentearen parte izango, haren helburua izango baita, soil-soilik, espeditentea hasteko edo ez hasteko erabakia oinarritzeko eskumena duen organoari irizpen-elementuak ematea.

Informazio erreserbatuaren prozesua amaitu ondoren, erabakitzen den kasuetan, diziplina-espeditentea irekiko zaio ustezko arau-hausleari, eta diziplina-araubidearen arloko araudiaren arabera eskumena duten organoek izapidetuko dute.

➤ **Espedienteak berrikustea**

Agintari eskudunek ikerketa amaitu ondoren, edo horren jarraipena egiteko agintari eskudunei transferitu ondoren (II. maila), ESKORIATZAKO Udalak zehatz-mehatz berrikusiko ditu iruzur potentzialarekin edo frogatuarekin zerikusia duen edozein prozesu edo prozedura, eragiketa horretan sartutako espediente guztiak eta/edo antzeko izaera ekonomikoa dutenak, bai eta barne-kontrolako sistemak ere. Gainera, ESKORIATZAKO Udalak iruzurraren aurkako neurriekin lotutako autoebaluazio-testaren emaitzaren txostenak berrikusiko ditu (II. eranskina).

Berrikuspen horrek objektiboa eta autokritikoa izan behar du, eta ikerketaren ardura duten agintariekin lankidetzan eta legea betez egin behar da, bai eta agintari judizialekin ere, bereziki artxiboak espazio seguru batean kontserbatzeari dagokionez eta langileak aldatuz gero, artxiboak transferitzeko bermeei dagokienez.

Berrikuspenaren emaitza gisa, ESKORIATZAKO Udalak, barne kontrolako organo independentearekin batera (II. maila), atzemandako puntu ahulei eta ikasitakoari buruzko ondorioak azalduko ditu, mekanismo egokiak, arduratsuak eta epe zorrotzak ezartzeko ekintza argiekin.

➤ **Emandako diruak berreskuratzea (bidegabeko ordainketak), kofinantzaketa kentzea eta ekintza penala**

ESKORIATZAKO Udalak, agintari eskudunekin batera, onuradunek bidegabeki jasotako diruak berreskuratzeko eskatuko du, bai eta antzemandako intzidentzia identifikatzen den espediente guztietatik Europar Batasunaren kofinantziazioa kentzeko ere.

Horretarako, ESKORIATZAKO Udalak prozesu zorrotzak formalizatuko ditu iruzurrez erabili diren EBko funtsen berreskurapenaren jarraipenean. Prozesu horiek argiak izan behar dute prozesu zibil edo penal bat jarraituko den kasuetan ere.

Bestalde, iruzurgileentzako disuasio-elementu gisa, ESKORIATZAKO Udalak agerian jarriko ditu zehapen-jarduerak, eta horien aplikazioa bultzatzeko mezua indartuko du.

9. Interes-gatazken egoerei buruzko neurriak eta prozesuak

Interes-gatazka (IG) dago, ESKORIATZAKO Udaleko langileek eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatzutako azpiproiektuak edo jarduerak kudeatzen eta gauzatzen parte hartzen duten gainerako pertsonak, zuzenean, zeharka eta modu partekatuan (prestatuntza-ekintzak, auditoretza edo kontrola barne), beren eginkizunak inpartzialki eta objektiboki ez gauzatzeko arriskua dutenean arrazoi familiarrengatik, afektiboengatik, kidesun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik.

Finantza Erregelamenduaren 61. artikulua ezartzen du IGa dagoela *finantza-eragileek eta aurrekontua zuzenean, zeharka eta modu partekatuan gauzatzen parte hartzen duten gainerako pertsonak, bai eta kudeaketan parte hartzen dutenek ere -prestatuta ekintzak, auditoretza edo kontrola barne-, beren eginkizunak modu inpartzialean eta objektiboan ez gauzatzeko arriskua dutenean arrazoi familiarrengatik, afektiboengatik, kidesun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik.*

Erregelamendu horrek, Kudeaketako OGaren III.C eranskinean aipatzen den bezala, honako hau ezartzen du:

- ✓ Aplikagarria da EBko erakunde guztietako partida administratibo eta operatibo guztietan eta kudeaketa-metodo guztietan.
- ✓ Edozein interes pertsonal mota estaltzen du, zuzena edo zeharkakoa.
- ✓ Interes-gatazka potentzialtzat “jotzen” den edozein egoeraren aurrean, jardun egin behar da.
- ✓ Agintari nazionalak, edozein mailatakoek, interes-gatazka potentzialak saihestu eta/edo kudeatu behar dituzte.

Interes-gatazkan inplikaturik egon daitezkeen eragileak:

- ✓ Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten langile publikoak eta eginkizun horietako bat edo batzuk eskuordetu zaizkien beste agente batzuk.
- ✓ Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratatistak, baldin eta beren jarduerak funtsekin finantzatzen badira, eta beren interesen alde baina EBren finantza-interesen aurka jardun badezakete, interes-gatazka baten esparruan.

9.1 Prebentzioa eta detekzioa

Europako Batzordeak, IAEBekin batera, egiturazko ekintzen esparruan kontratazio publikoko prozeduretan **interes-gatazkek hautemateko gida praktikoa** (VI. **eranskina**) jarri du kudeaketaren arduradunen eskura.

Eskoriatzako Udalak honako neurri hauek hartuko ditu **interes-gatazkek prebenitzeko eta detektatzeko** gida honen laguntzaz:

- **Interes-gatazka motei eta tartean diren pertsonen buruzko informazioa.**

